

Andoni Isusi, txakur kroseto Espainiako txapelketa:

“Lasterketetan, txakurrak egiten du lanaren %70”

Martxoaren 9 eta 10ean txakur kroseto Espainiako txapelketa irabazi zuen Andoni Isusi ermuarrak Baqueira Bereten. Berak eta bere gerrira lotuta zihoan Baltok, bere Greysterrak. Deba Beheko Takuai Mushing taldeko kideak dira, eta Belgikan burutuko den Europako Txapelketa dute orain buruan.

- Zenbat denbora daramazu txakur krosetan?

Nire laugarren urtea da. Lehenengo bi urteetan Euskal Herri mailan aritu nintzen, eta Euskadiko txapelketa dundor de nintzen. Azken urte t'erdian Espainiako txapelketan jardun dut. Honen barruan, alde batetik liga edo kopa dago; bestetik lurreko eta elurreko txapelketak. Bietan hartu dut parte aurtan. Lurrekoan 7. geratu nintzen, eta elurrekoan garaile izan naiz.

- Proba horietan txakur berarekin aritu zara?

Ez. Lurreko proba egin zenean, Baltok urtebete baino gutxiago zeukan, eta ezin izan nuen eraman. Taldekide baten txakurra eraman nuen.

- Baina beste txakur bat baduzu ere, ezta?

Bai, Tyson pitbulla. Berarekin Euskal Herriko lasterketetan ibiltzen naiz. Kirol honetan edozein arrazatako txakurra ere lehiatu zaitezke, baina maila gorenean aritzeko lasterketetarako

berariazkoak diren txakurrak eraman behar dituzu, bizkorragoak direlako. Balto lasterketako txakurra da. Greyster arrazakoa da, Eskandinaviako mestizoa: galgo eta brako artekoa. Bere genetikan dago lehiatzea. Santandarreko mutil baten bitartez lortu dut.

- Zenbat kilometro izaten dituzte lasterketek?

Lau eta zazpi bitartean. Sprintak dira, txakurrak dena ematen du lehen momentutik. Eta berak egiten du lanaren %70. Zure forma fisikoa zenbat eta eskasagoa izan, orduan eta lastre handiagoa zara txakurarentzat.

- Nola entrenatzen duzu berarekin, hemen elur guxi dago...

Ez, elurrik ez! Entrenamenduak bereizten ditugu. Txakurra entrenatzeko, nire bizikletara lotzen dut; nik, aldiz, nire kabuz egiten dut korrika edo bizikletan. Presa gainean dagoen pista batean aritzen gara, Areitio ingurutik. Hemen ez da erraza leku lau topatzea!



Andoni Isusi, bere ezkerrean Baltok eta Tyson eskuman.

- Zergatik ez duzu lasterketetan bezala entrenatzen?

Kirol honek sekulako astindua ematen die hankei. Txakurra bizikletan lotuta eramanean, ni ez naiz horrenbeste nekatzen. Nahiz eta arin joan, txakurra frenatzen zoaz beti, eta hankak sufritu egiten dute. Hiruzpalau egunetan minez zabiltza.

- Gure artean ez da oso kirol ezaguna, zer dela-eta hasi zinen txakur krosetan?

Hemen ez, baina Europako iparraldean oso ohikoa da. Tebistaren bitartez izan

nuen honen berri, txakur hezitzaile baten saioan. Arresa lortu nuen, eta Tysonekin hasi nintzen. Hasieran ez zidan kasu handirik egin, eta lehen lasterketan beldurtuta hasi arren, oso emaitza ona lortu genuen. Eta pikatu egin nintzen.

- Zein proiektu dituzue orain?

Urrian Europako txapelketara joango gara, Belgikara. Maila oso altua egongo da bertan, eta gure nahia da disfrutatzea, ikasten jarraitzea, eta ahal bada goiko postuetan geratzea.

Dorleta Vidal

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean